

## MIÑE LAMIÑE 2015

### EUSKARAREN INGURUAN SORTUTAKO MITOAK eta GEUK EUS KANPAINA

Aurreko urteetan, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko Berba eta Kafea antolatu dugu. Aurten, ekitaldiari kutsu berri bat eman nahi izan diogu, izena aldatuta: Miñe Lamiñe.

Miñe Lamiñe ekitaldiarekin, bi helburu garrantzitsu lortu nahi izan ditugu:

- Euskararen inguruan sortu diren mitoak identifikatzea eta mito horiek gainditzeko argudioak topatzea.
- Geuk eus: 1.000 arrazoi bizitzeko kanpainaren aurkezpena egitea.

Aurtengoan ere, 30 lagun inguru elkartu garan Kafe Antzokian. Giro alai eta ederrean, berba eta berba ibili gara, pastak, kafea eta infusioak lagun izan ditugula.



## Zeri buruz egin dugu berba?



**1. Nor zara?** Taldekide guztien aurkezpena egingo dugu, honakoak aipatuz: izena, zergatik etorri zara Miñe Lamiñera? Zer espero duzu gaurko saiotik?



**2. Hautsiko ditugu euskararen inguruko mitoak?** Egin euskararen inguruan sortu diren mitoen zerrenda, eta partekatu ingurukoekin. Ondoren mitoak hausteko argumentuak bilatuko ditugu.

**euskaraz  
bizi  
nahi dut**

**3. Zein da euskaraz bizitzeko zure arrazoa?** Hustu barrenak! Azaldu ingurukoei zein den zure arrazoa eta ezagutu besteena.

## Euskararen inguruko mitoak

Euskararen inguruan mito asko sortu da eta mito horiek belaunaldiz belaunaldi transmititu dira. Mitoek hizkuntza-aurreiritziak sortzen dituzte eta aurreiritzi horiek, era berean, hiztunen jarreretan eta jokabideetan dute eragina, eta, zenbait kasutan, hizkuntzaren normalizaziorako kaltegarriak izan daitezke.

Hori dela eta, Miñe Lamiñe ekitaldian egin dugun lehendabiziko ariketa izan da euskararen inguruan sortu diren mitoak identifikatzea eta mito horiek gainditzeko argudioak topatzea. Hona hemen egindako lanaren emaitza:



<b>Mitoa</b>	<b>Mitok gainditzeko argudioak</b>
<b>Ikastea zaila da</b>	Ahaleginarekin lortzen da; askotan, borondatea falta da. Euskaldunek, gainera, laguntza eman dezakete. Denbora behar da euskara ikasteko, beste edozein gai ikasteko behar den bezala, baita ikasitakoa praktikan jartzea eta erabiltzea. Bizitza bera da zaila.
<b>Bermeoko euskara txarra da</b>	Ez dago euskara txarrik, denak dira aberasgarriak. Norberarena landu behar da.
<b>Euskara eskolan ikasten denez, etxean ez dute zertan egin</b>	Euskara ikasteak ez du esan nahi erdara baztertea edo galtzea.
<b>Erdara jakinda elkar ulertzen dugu, euskara ez da beharrezkoa</b>	Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, hobeto; eta gurea galdu barik.
<b>Euskaraz ez daki eta egin dezagun gaztelaniaz, errespetuagatik</b>	Euskaraz eginda, aukera ematen diegu euskaraz ikasteko. Gaztelaniara pasaz gero, mesede baino kalte gehiago egiten diogu.
<b>Euskara oso zaila da</b>	Ez beste batzuk baino gehiago.
<b>Gure berba egiteko modua gutxiagotzat hartzen dugu</b>	Nahiz eta adiera batzuk erdaratik hartu, euskara aberatsa eta ondo landua da.
<b>La lengua del diablo, "habla en cristiano"</b>	Deabrurik ez dago, gurea defendatu behar dugu.
<b>Bermeon txakurrei eta umeei bakarrik egiten zaie euskaraz</b>	Ez horiei bakarrik, euskara bizia da Bermeon.
<b>Bizkaitar batek ezin ditu "s", "z", "ts", "tz", "tx" bereizi</b>	Praktikarekin horiek bereizten ikas daiteke.
<b>Euskara batua artifiziala da</b>	Euskalki batetik atera zuten, gainontzeko euskalkien ekarpena ere egin zitzaion eta egiten zaio.
<b>Hiri handietan ez da euskara egiten</b>	Geroz eta gehiago entzuten da euskara hiri handietan.
<b>Errespetuagatik erdara erabili behar da</b>	Ez da eskubidea, batengatik beste guztiak erdaraz berba egin behar izatea.
<b>Euskarak eta politikak lotura daukate</b>	Gaztelaniak eta politikak ere bai.
<b>Ingelesa euskara baino baliagarriagoa da</b>	Euskal Herrian bizitzeko ez.
<b>Objektiboki euskarak muga asko dauka gaztelaniarekin konparatuta. Euskarazko eta gaztelaniazko hiztegien lodiera konparatzea besterik ez dago</b>	Berez, hizkuntza denak dira berdinak erabileran. Hizkuntza batek ez dauka mugarik.

<b>Euskara da Europako hizkuntzarik zaharrena</b>	<b>Ez dakigu horrela den, baina ez zaigu ardura. Benetan garrantzitsuena da gurea dela.</b>
<b>Euskalkiak direla eta, beste hizkuntza batzuek baino arazo gehiago dauka euskarak</b>	Elkar ulertu nahi dugunean, elkar ulertzen dugu; munduko beste hizkuntza batzuetan ere antzera gertatzen da
<b>Osakidetzako oposizioetan (OPE) euskarak gehiago puntuatzen du gaiak berak baino</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Euskarak ez du balio ezertarako</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Euskara desagertuko da</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Ingelesa ikastea hobeto da euskara ikastea baino</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Kanpoko euskera beti da ederragoa</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Bermeoko euskera erabili behar dugu, bestea zatarra da</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Dena ezin da euskaraz azaldu edo ikasi</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Euskaraz milaka aditz mota daude</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Euskara hizkuntza zaharra da</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Berba berrien aurrean kontrako jarrera</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan
<b>Euskaldunak garenak baino gutxiago garela pentsatzen dugu sarritan</b>	Argudioak lantzeko astirik ez da izan



## Gure arrazoiak

Ekitaldiaren bigarren zatian, euskaraz bizitzeko ditugun arrazoiak zeintzuk diren pentsatu dugu, eta gure arrazoiak taldekideekin partekatu ditugu:

- *Hobeto sentitzeko*
- *Sehaskan jasotako maitasunaren lotura ez galtzarren eskaini dizkiot ordu piloa euskarari*
- *Barru-barrutik sentitzen dudalako. Erabateko euskalduna sentitzen naizelako. Hala ere, berezko horren kontzientziarekin ibili behar dut, gaur egun dagoen egoeraren sareetan ez erortzeko.*
- *Uste dut ez dudala behar arrazoirik euskaraz egiteko. Bestela ematen du inor konbentzitu nahian nabilela. Beste hizkuntzek ez dute argumenturik behar.*
- *Hemengo hizkuntza delako. Herritarron hizkuntza.*
- *Ama-hizkuntza. Gustuen hizkuntza honetan aritzen naiz.*
- *Euskararen erabileran daukagun egoeragatik. Kontzientzia.*
- *Zenbat eta gehiago egin, hobeto adierazten naizelako.*
- *Etxeko berbeta izan delako, gurasoena.*
- *Txikitatik ikasi ez dudan hizkuntza, seme-alabei irakasteko gaztetatik eta eurek euskaraz bizitzeko*
- *Gure hizkuntza munduan bakarra ez galtzeko*
- *Neure buruarekin ondo sentitzeko*
- *Euskal Herrian bizi garelako*
- *Non bizi gara? Euskal Herrian bizi garelako*
- *Asko maite dugulako*
- *Ama-hizkuntza delako*
- *Familiagatik: guk ez badugu egiten, familian ez da egiten*
- *Geurea delako*
- *Barneko beharrizana delako*
- *Alor ahalik eta gehienetara zabaltzeagatik*
- *Esfortzua egiteko prest gaudelako*
- *Gugatik besteek erdaraz egin behar ez izateko*
- *Gure identitatea eta kolektibotasuna aldarrikatzeko modua delako*
- *Gure ama-hizkuntza delako, bizitzako hizkuntza emozionala delako*
- *Lan-tresna delako*
- *Eskubide delako*
- *Euskaldunen artean konplizitatea handiagoa lortzen laguntzen duelako*



## Geuk eus kanpaina

Euskera Sailak euskararen erabilera bultzatzeko hainbat eta hainbat ekimen bideratzen ditu urtean zehar. Ekimenak mota askotarikoak dira eta arlo eta publiko desberdinei bideratutakoak izaten dira, baina ekimen horiek ekintza puntual moduan ikusten dira batzuetan, eta ez marko orokor baten barruan. Hori dela eta, Euskera Sailaren helburua da, hurrengo urteei begira, sentsibilizazio-kanpaina indartsu bat martxan jartzea, herritar guztietan eragina izango duena: Geuk eus: 1.000 arrazoi bizitzeko.

Geuk eus kanpainaren aurkezpena egin dugu, eta kanpainaren oinarria izango den webgunea aurkeztu dugu. Bertan, 5 herritarren elkarrizketak jaso ditugu, 5 herritar horiek euskaraz bizitzeko dituzten arrazoiak hain zuzen ere.




Kanpainaren helburu nagusia izango da Bermeoko herritarrek euskaraz bizitzeko dituzten arrazoiak jasotzea eta ezagutaraztea.

## Ekitaldiaren balorazioa

Miñe Lamiñe ekitaldiari amaiera emateko, talde bakoitzak abesti bat aukeratu eta abestu egin du. Parte-hartzaileen ahotsak eta musikarako dohainak ezagutu ahal izan ditugu.



Ekitaldiari amaiera emateko Urgatz eta Zartada taldeek euren abestiak ere oparitu dizkigute.



**Eskerrik asko, guztioi!**